



DESBERDINTASUNAK

baztertuz

GARAPENA

lortu

 Lan Koadernoa
Batxilergoa
1-2



1. Jarduera **Desberdintasunen bila**

Bete ezazu honako taula hau dagokion informazioarekin.

	Enpresa zuzendu	Gizarte- elkartearen presidentea izan	Kirol-elkartearen presidentea izan	Bakearen Nobel Sariduna izan
Idatzi hiru ezaugarri eginkizun hauek egin ahal izateko				
Nork egin dezake hobeto: gizonak ala emakumeak? Zergatik?				
Idatzi eginkizun hori egiten duen bi pertsonaren izena				



ESPAZIOAK BERRRESKURATUZ

Generoa eta Sexua

"Generoa" 70. hamarkadan sortu zen kontzeptua da. Generoa "sozialki eraikitako sexua" dela esan ohi da. Generoak gizonezkoen eta emakumezkoen *eraikuntza soziala* du bere baitan, denboran eta espazioan aldatu egiten dena, eta, berezkoak baino, ikasitako jokaerak ordezkatzeko ditu.

Generoa biologiak ez baizik, testu inguru sozialak, politikoak eta ekonomikoak finkatutako gizonezkoen eta emakumezkoen *funtzio sistemari* eta hauen *artean ezarritako erlazioei* buruzko kontzeptua da.

SEXUA: gizakiak ezaugarri anatomiko eta fisiologikoen bidez sailkatzen ditu (gizonezkoa eta emakumezkoa).

GENEROA: Gizakiak ezaugarri sozial eta kulturalen arabera sailkatzen ditu (gizonezkoena eta emakumezkoena).

Boto-eskubidea

Begien bistakoa eta aspaldikoa dela pentsa dezakegun arren, boto-eskubidea munduko zati handi batean ez da emakumeen eskubide bat izan orain dela urte gutxi batzuk arte, hala iparraldean nola hegoaldean. Emakumeek boto-eskubidea lortu zuten lehen herrialdea *Zeelanda Berria* izan zen, 1893an. Baina Suitzan, iparraldeko herrialde bat izaki, apenas orain 30 urte emakumeek ezin zuten bozkatu.

Gaur egun oraindik ere badira Jordania eta Saudi Arabia bezalako herrialdeak non emakumeek ez duten boto-eskubiderik. Libanon emakumeek hezkuntza frogatzen behar dute botoa eman ahal izateko, gizonek, berriz, ez. Han botoa ematea gizonentzat derrigorrezkoa da eta emakumeentzat aukerakoa.

Afganistanen emakumeek badute boto-eskubidea baina parte-hartzea oso oso txikia izaten da, gizarteak berak presioa egiten dietelako eta aukeratzeko gaitasuna ukatuz boto-eskubidea erabiltzea ukatzen dietelako.



Emakumezko zientzialariak, idazleak, Nobel saridunak

Emakumea eta Gobernua

Munduko 172 herrialdeetako 11tan baino ez daude emakumeak lehendakaritzan nahiz lehen ministro postuetan: Angela Merkel Alemaniako kantzilerra, Helen E. Clark Zeelanda Berriko lehen ministroa, Ellen Johnson-Sirleaf Liberiako lehendakaria, Michelle Bachelet Chileko lehendakaria, Mary McAleese Irlandan, Vaira Vike-Freiberga Letonian, Gloria Macapagal Filipinetan, Tarja K. Halonen Finlandian, Khaela Zia Bangladeshko lehen ministroa, Luisa Diogo Mozambikekoa, eta Maria Do Carmo Silveira Sao Tome eta Principe-koa.

Nobel saria jaso duten ia 800 lagunetatik apenas iristen den 50era sari hau jaso duten emakumezkoen kopurua.

1909an Selma Lagerlöf suediarra izan zen literaturako Nobel saria jaso zuen lehenengo emakumea. Ondoren beste 9 izan dira zorion hau izan dutenak.

Mari Curie, Maria de Zayas, Claudine Picardet nahiz Anne Finch dira zientzietan aurkikuntza handiak egindako emakumezko zientzialari eta mediku ospetsu batzuk.

Rigoberta Menchú eta Wangari Maathai izan dira indigenen giza-eskubideen eta garapen iraunkorraren alde egindako lanarengatik bakearen Nobel saria jaso duten emakumeetako batzuk.



2. Jarduera: **Zergatiak bereizten**

Aztertu irudi hau eta argitu helarazten dizkigun mezuak.



Nazio Batuek 2015 urtean baino lehenago genero-desberdintasunak desagertzeko konpromisoa hartu zuten (Milurtearen Garapenerako 3. helburua)

GAURKORAKO BERDINAK

0 2 0 1 5

ZERO BI ZERO BAT BOST

Emakumea jaiotzea halabeharrezkoa da. Baita herrialde batean edo bestean jaiotzea ere. Baina berdintasuna munduan bultzatzea ez da zorizko jokia:
EGINBEHARRA DA



2015/03

3^o
HELBURUA

2015

desberdintasuna

00

5 102408025>0183698948

Mezuak Mezuak Mezuak Mezuak





3. Jarduera: **Premia bati erantzunez**

Hurbil zaitetz zure parrokiako CARITAS taldera eta informazioa jaso:
zeintzuk dira, zer egiten dute, zergatik,
nondik lortzen dute dirua proiektuak aurrera eramateko,...

Zuk dakizuna eta zure esperientzia kontuan hartuz, idatzi ZER DA GAUR EGUN BOLUNTARIOA IZATEA: zertan datza, alde on eta txarrak, non izan boluntarioa, behar dira boluntarioak ala ez,...




Otoitza egiteko



Bide zabaltzera deitzen nauzu

Ez da biderik nire bizitzan, Jauna;
 ozta-ozta gaur zabaldu ditudan bideak, bihar desagertuko direnak.
 Bideen garaian nago ni:
 bide gurutzatuak, bide paraleloak.
 Eta ni bidegurutze batean bizi naiz
 eta nire iparrorrazak, Jauna, ez du iparra markatzen.
 Nekatuta noa helbururantz korrika
 eta bideko hautsa itsatsi egiten zait pauso bakoitzean,
 gauaren iluna bezala.
 Lauoinka noa oinez, eta lorratz bat bilatzen dut itsumustuka,
 eta oinatz batzuk jarraitzen ditut.
 Eta nire buruari galdetzen diot:
 Nora narama bide honek? Zein da nirea?
 Zuk eman badidazu nirea da. Nora narama?
 Zuk marratu baduzu helburua zein den jakin nahi dut.
 Nire kantinplora eta bizkar-zorroa hutsik geratu eta
 nirekin inork ere ez partekatzeko beldur naiz.
 Jauna, zu atera zara nire bidera nire norabidea adieraztera.
 Zure ahotsa da, dei bihurtua, lautadan nahiz mendi malkartsuan
 nire bidea zehatz-mehatz zein den esaten didana.
 Zure ahotsa da, dei bihurtua, nire lozorrotik,
 nire bizitza erraz eta segurutik,
 nire familiarengandik eta nire gauzetatik erauzi nauena
 Zure ahotsa da, dei bihurtua, besterentzat laguntza,
 eta zerbitzua, eta ulermena, eta poza,
 eta laguntza izatera bidali nauena.
 Zure ahotsa da, dei bihurtua, ni neure buruarengandik erauzi
 eta talde bihurtzen nauena.
 Jauna, zure bidea bilatzen nabil eta zure Hitzarekin fidatzen naiz.
 Eman iezazkidazu pauso bakoitzean
 zurekin ibiltzeko indarra eta kemena.
 Eman iezadazu ibilaldirako prest dagoen lagun kementsu talde bat.
 Gure denda eramango dugu, gurekin eramango zaitugu,
 eta zu izango zara egunez egun bideratuko gaituena.
 Bide baten bila ari naiz orain, Jauna.
 Zu, Bidea zaren hori, eman argi berdea nire bizitzari
 bidea zabaltzera deitzen bainauzu.






Jauna, bedeinkatu nire eskuak



Jauna, bedeinkatu nire eskuak
leunak izan daitezten eta inoiz ere estekatu gabe hartzen jakin dezaten,
kontuak atera gabe ematen jakin dezaten
eta bedeinkatzeko eta kontsolatzeko indarra izan dezaten.
Jauna, bedeinkatu nire begiak premia ikusten jakin dezaten
eta ez dezaten inoiz ere ahaztu inor ere liluratzen ez duena;
azalaren azpikoa ikus dezaten
besteak nire begiratzeko moduarekin zoriontsu izan daitezten.
Jauna, bedeinkatu nire belarriak zure ahotsa entzuten jakin dezaten
eta atsekabetuen oihua argi entzun dezaten;
alferrikako hotsarentzat eta hitz-jarioarentzat gor izan daitezten
baina ez deitzen duten eta entzunak
eta ulertuak izatea eskatzen duten ahotsentzat
nahiz eta nire erosotasuna eten.
Jauna, bedeinkatu nire ahora Zure berri eman dezadan
eta ez dezadan zaurituko edo hondatuko duen ezer ere esan;
Leunduko duten hitzak besterik esan ez ditzadan,
ez dezadan inoiz ere isilmandaturik eta isilpekorik saldu,
irribarreak eragiten jakin dezadan.
Jauna, bedeinkatu nire bihotza
zure Izpiritua hartuko duen tenplu bizi izan dadin
eta berotasuna nahiz babesa ematen jakin dezan;
barkamena ematen eta ulertzen eskuzabala izan dadin
eta mina nahiz poza maitasun handiz partekatzen ikas dezan.
Jainko maitea, egon nadila zuretzat libre
naizen guztiarekin eta dudan guztiarekin.



Mundua eraikitzen dugu

Jauna, bakean lan egiten duten eta mundu zoriontsuago bat eraitzeko lan-
nean ari direnengatik eskerrak ematen dizkizugu. Dena den, maiz ikusten
ditugu sufritzen duten haurrak, emakumeak eta gizonak telebistan. Gose dira,
gerran zauritu dira, beren etxeetan ehizatu dituzte, bonbek eta fusilek txiki-
tuta.
Tarteka beren burua sufritzen dutenen alde eskaintzen duten gizon-
emakumeak ikustera ere joaten gera. Hauen pisua arintzen saiatzen dira.
Gaizkiaren aurka borrokatzen dira, beldurgarriei irribarre egiten diete eta
ahulei adorea eta itxaropena eman.
Jauna, benetan maite denean sufrimendua jasangarriagoa da, bidegabekeriek
atzera egiten dute eta liskarrak itzali egiten dira. Erakutsiezaguzu maitatzen,
borrokatzen, irribarre egiten, bakea eta laguntasuna guregana iris daitezten
guztion bihotzean, itxaropena lora dadin.



PROCLADE
San Francisco, 12A-3º
48003 - BILBAO
94 416 69 31
mision-bi@terra.es

Laguntzen du:

bbk